



# Getarian euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa

---

2024ko uztaila



# Aurkibidea

Sarrera.....	3
Metodologia.....	4
Aurrelanak .....	4
Diagnostikoa .....	4
Diseinua .....	5
Plana inplementatzeko egitura.....	5
Diagnostikoa.....	6
Getariako datu demografikoak eta ekonomikoak .....	6
Biztanle kopurua .....	6
Biztanleak, adin taldeka.....	7
Biztanleen jatorria.....	7
Atzerrian jaiotakoak, herrialde taldeen arabera .....	7
Jarduera ekonomikoa, sektoreka .....	8
Turismoa.....	8
Urola Kostako datu soziolinguistikoak.....	9
Urola Kostako udalerrietako euskararen kale erabilera eta ezagutza .....	9
Getariako datu soziolinguistikoak .....	10
Euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza .....	10
Kale erabileraren bilakaera .....	10
Kale erabilera, adin tarteka. Bilakaera: 2014, 2019 eta 2021.....	11
Kale erabileraren, sexuaren arabera. Bilakaera: 2014, 2019 eta 2021.....	11
Ezagutzaren arabera esperotako erabilera eta benetakoa.....	11
Ostalaritza eta euskararen presentzia .....	12
Herritarren iritzia .....	13
2020-2023KO ESEParen balorazio kualitatiboa .....	14
Diseinua.....	16
Prozesuaren emaitza.....	16
AROA 2024-2027 .....	17
Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia .....	17
Ardatz estrategikoak, lan ildoak, ekimenak eta ekintzak.....	18
Gobernantza .....	24
Adierazleak.....	25

# Sarrera

Getaria euskararen arnagune bat da, hau da, herritarren %80 baino gehiago euskaldunak dira, eta oro har, eroso eta normaltasun osoz erabiltzen da euskara egunerokoan. Gainera, UEMAKo kide da. Dena dela, azken urteetan gero eta kezka handiagoa ari da sortzen euskararen erabilera pixkanaka jaisten ari dela eta.

Azken urteetan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) egon da martxan Getarian, eta UEMAK izan du ardura plana betearazteko eta jarraipena egiteko. Aurten, geldialdi bat egin da Getariak euskararen erabilera sustatzeko zein erronka dituen aztertzeke eta horren arabera Eusko Jaularitzaren AROA marko berrira egokitutako plangintza berri bat diseinatzeko. Horretarako, eguneroko dinamikatik harago begiratu da, egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta aurrera begirakoak diseinatu dira.

Horixe izan da udalak 2024ko otsailetik orain arte egin duen bidea, Emun aholkularitzarekin eta hainbat herritarrekin batera, eta horixe da, hain zuzen, txosten honetan jasotzen dena: alde batetik, 2024-2027 aldirako euskararen plana diseinatzeko egin den prozesua (metodologia, diagnostikoa, prozesuan jasotako edukia) eta, bestetik, emaitza bera, hau da, Getarian euskararen erabilera areagotzeko aurrera begira dituen erronkak eta landu beharreko ildoak eta ekintzak.

Prozesua bera aberasgarria izan da, herritarrekin eta herriko hainbat eragilerekin batera lan egin delako eta, batez ere, horrek berak aukera eman duelako euskara plana aurrera eramateko antolaketaren eta egituren inguruan hausnartu, zenbait herritar aktibatu eta proposamen berriak sortzeko. Esan genezake horixe dela prozesu honek eta plan berri honek ekarri duen berritasun nagusia: Gobernantzaren arloa. Azken batean, AROA elkarlanerako proposamen marko bat da, erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzaren sustatzen duena, eta Getarian ere hor jarri beharko da bereziki arreta eta indarra plangintzaldi honetan.

# Metodologia


AROaren plana egiteko metodologiak lau urrats nagusi izan ditu:



## Aurrelanak

Aurrelanetan prozesu osoa diseinatu zen: kronograma zehatza, herritarrek parte hartzeko une eta formatuak, prozesua aurrera eramateko egiturak eta rolak, eta komunikazio lanak.


Hona hemen prozesurako sortu ziren egiturak eta horien egitekoak:



### TALDE ERAGILEA

Prozesuaren koordinazioa eta komunikazioa.

- Alkatea
- Euskara zinegotzia
- UEMako teknikaria
- Emuneko aholkulariak



### KONTRASTE TALDEA

Prozesuan zehar egiten denaren analisia, interpretazioa eta kontrastea.

Ofizio edo arlo ezberdinetako pertsonak, prozesuari bestelako ikuspegi bat eman diezaioketenak.



### SAIO IREKIAK: HERRITARRAK/ERAGILEAK

Arlo bakoitzeko erronkak eta ideiak identifikatu.

Hezkuntza, aisialdia, kirola, kultura, bizilagun berriak, lan mundua, turismoa, ostalaritza, merkataritza, zerbitzu publikoak, euskalgintza...

## Diagnostikoa

- Datu sozioekonomiko eta soziolinguistiko batzuk bildu ziren eta horien gaineko irakurketa bat egin zen, egoera zein zen jakite aldera.
- Herritarrei galdetegi bat bidali zitzaion, herrian euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. 33 herritarrek erantzun zioten galdetegiari: horietatik %60 emakumezkoak izan ziren eta %40 gizonezkoak, %100ek euskaraz erantzun zuten galdetegia, %66k online, eta adinari dagokionez, %55 40-65 urte bitartekoak izan ziren, %35 25-40 urte bitartekoak.
- Aurreko euskara plana aztertu zen, arloz arlo, Getariako euskara planaz arduratzen den UEMako teknikariarekin batera, eta ondo egindakoak eta hobetzekoak identifikatu ziren.
- Egindako diagnostikoa Kontraste Taldean aurkeztu zen 2024ko apirilaren 6an. Kontraste Taldeak, horren gaineko hausnarketa bat egin eta gero, zenbait foku edo eragin eremu identifikatu zituen.

## **Diseinua**

Plana diseinatzen hasteko, bi saio ireki egin ziren herritarrekin eta herriko eragileekin.

- Lehenengo saio irekia 2024ko maiatzaren 14an egin zen. Saio horretan, diagnostikoa eta Kontraste Taldearen ondorioak aurkeztu ziren, eta zenbait ariketa egin ziren Kontraste Taldeak identifikatutako eragin eremuetatik abiatuta, hainbat esparrutan euskararen erabilerari lotutako indarguneak, hutsuneak eta esparruen arteko loturak identifikatzeko.
- Bigarren saio irekia 2024ko maiatzaren 23an egin zen. Saio horretara, proposamen xeheago bat eraman zen, bai kontraste taldean eta bai lehenengo saio irekian jasotakoekin osatutakoa: planaren helburu nagusia, erronkak eta lan ildoak.

Bi ariketa egin ziren saioan: batetik, helburu, erronka eta lan ildo horiek egokiak ziren ikusi eta aldaketak proposatu eta, bestetik, lan ildo bakoitza lantzeko ideiak proposatu.

Bi saio irekietan jasotakoa Kontraste Taldean aurkeztu zen 2024ko ekainaren 6an. Kontraste taldeak eduki hori aztertu eta beren ekarpenak egin zituzten.

Ondoren, Talde Eragileak eman zion forma prozesuan zehar jasotakoari, eta plan zehatza diseinatu zuen, AROA markora egokituta.

## **Plana inplementatzeko egitura**

Prozesuan zehar, lekua egin zaio gobernantzari eta antolamenduari ere, AROA markoaren zati garrantzitsua baita hori. Hala saio irekietan nola kontraste taldean, plana aurrera eramateko egiturez hitz egin zen, eta hainbat ideia jaso ziren. Besteak beste ideia horietan oinarrituta egin du Talde Eragileak plana inplementatzeko egituren proposamena.

# Diagnostikoa

Diagnostikoan, honako informazio hau bildu zen:

- Getariako datu demografiko eta sozioekonomikoak.
- Urola Kostako eta Getariako datu soziolinguistikoak.
- Herritarren iritzia Getarian euskarak duen egoerari buruz.
- 2020-2023ko ESEParen balorazio kualitatiboa.


## GETARIAKO DATU DEMOGRAFIKOAK ETA EKONOMIKOAK

Getariako euskararen plan estrategikoa diseinatzeko, garrantzitsua da jakitea zein den zein den orain Enkarterriren egoera eta zein aurreikuspen egiten diren aurrera begira, honako hauei dagokienez: demografia, ekonomia, turismoa, enplegua...

Informazio hori jasotzeko, EUSTATEko datuak eta Udalaren eta UEMAREN informazioa erabili da.


### **Biztanle kopurua**

1900. urtea oinarri hartuta, asko areagotu da Hego Euskal Herriko biztanle kopurua (%216), eta udalerrri euskaldunetan ere nabarmena izan da gorakada, baina apalagoa (%90). Azken 30 urteetan, %20,5 handitu da Getariako biztanle kopurua.




## **Biztanleak, adin taldeka**

Grafiko honetan ikusi daitekeen bezala, Getariako biztanleria zahartzen ari da, EAEko joera berari jarraituz.




## **Biztanleen jatorria**

Azken hogeita urteetan, gero eta gehiago dira Hego Euskal Herritik kanpo jaiotako biztanleen kopuruak.




## **Atzerrian jaiotakoak, herrialde taldeen arabera**

Beheko grafikoan ikus daiteke zein herrialde taldetakoak diren Espainiako estatutik kanpo jaiotako getariarrak eta herrialde talde horien bilakaera azken zortzi urteetan. Gaur-gaurkoz Ekialdeko Europakoak eta Amerikakoak dira gehienak.



### Jarduera ekonomikoa, sektoreka

Getarian zerbitzuen sektorea da nagusi, batez ere turismoari dagokiona. Dena dela, arrantzak eta txakonlingintzak ere indar handia dute.



### Turismoa

Esan bezala, turismoa da sektorerik indartsuena; hor sartzen dira jatetxeak, mota guztietako ostatuak, txakolindegia, dendak, museoak...

Getariako turismo bulegoko datuen arabera, urtetik urtera gero eta bisitari gehiago etortzen dira Getariara, eta gehienak Espainiako Estatutik etortzen dira (turismo bulegotik pasatzen diren bisitariak kontuan hartuta).



## UROLA KOSTAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

### **Urola Kostako udalerrietako euskararen kale erabilera eta ezagutza**


Beheko taulako datuetan ikus daiteke kostako herrietan txikiagoa dela euskararen erabilera barrualdeko herrietan baino, eta Getaria da kostako herrien artean erabilera daturik handiena duena. Gaitasunari dagokionez ere egin liteke bereizketa hori; oro har kostako herrietan euskara gaitasuna barrualdeko herrietako baino txikiagoa da, baina Getaria da salbuespena: euskara gaitasuna Azkoitiko eta Zestoakoa baino handiagoa da. Erabileraren eta gaitasunaren arteko aldea ere nabarmen handiagoa da kostako herrietan barrualdekoetan baino.

UDALERRIA	EUSKARAREN KALE ERABILERA	GAITASUNA	BIZTANLE KOPURUA
Errezil	99,0	94,1	585
Aizarnazabal	93,8	83,5	771
Azpeitia	86,6	83,7	15.329
Zestoa	78,3	81,5	3.781
Azkoitia	68,9	76,9	11.962
<b>Getaria</b>	<b>68,4</b>	<b>84,3</b>	<b>2.830</b>
Orio	61,6	76,68	6.107
Zumaia	50,8	73,8	9.983
Zarautz	50,7	74,1	23.243
Aia	Daturik ez	87,83	2.033
Beizama	Daturik ez	89,17	118

## GETARIAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK


### **Euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza**

Beheko grafikoan ikus daitezke azken 30 urteetan jaitsi egin dela Getarian euskaraz dakiten pertsonen kopurua, eta are gehiago jaitsi da euskara lehen hizkuntza dutenen eta etxean euskaraz hitz egiten dutenen kopurua. Horrek esan nahi du, adibidez, duela 30 urte euskaldun ia guztien lehen hizkuntza zela euskara eta orain euskaldun batzuen bigarren edo hirugarren hizkuntza dela euskara, hau da, etxetik kanpo ikasitakoa.




### **Kale erabileraren bilakaera**

2014ko, 2019ko eta 2021eko datuak ikusita, euskara da kaleko hizkuntza nagusia Getarian, baina, 2021eko neurketan, aurreko neurketekin konparatuta, zortzi puntu egin zuen behera euskararen erabilerak. Gaztelaniariaren erabilerak, berriz, gora egin zuen azken neurketan.




### **Kale erabilera, adin tarteka. Bilakaera: 2014, 2019 eta 2021**

Neurketa guztien arabera, haurrek eta gazteek egiten dute gehien euskaraz, eta heldu nagusiek gutxien. Horrez gain, adin tarte guztietan egin du behera erabilerak urtez urte, baina helduen kasuan jaitsi da gehien.



### **Kale erabileraren, sexuaren arabera. Bilakaera: 2014, 2019 eta 2021**


Ez dago sexuaren araberako alde handirik euskararen erabileran, ez eta urtez urteko joera nabarmenik ere.



### **Ezagutzaren arabera esperotako erabilera eta benetakoa**

Getariako herritarren euskara ezagutza kontuan hartuta, Txillardegiren eredu matematikoa erabiliz, kalkula daiteke zenbatekoa den erabilera isotropikoa, hau da, ezagutza datu horiekin herrian espero daitekeen erabilera. 2016ko datuekin, Getarian, %65eko erabilera espero


daiteke; neurtutako erabilera, ordea, handiagoa. Hala gertatzen da udalerrri gehienetan, eta horrek erakusten du euskaldunek hein handian erabiltzen dutela euskara.



### ***Ostalaritza eta euskararen presentzia***

Getarian ostalaritzako 22 establezimendu daude (144 langile).

- Horietatik Euskaraz barra-barra egitasmoan parte hartzen dute 8k
- Hona hemen establezimenduetako hizkuntza paisaiari buruzko datuak:
  - 7 euskaraz bakarrik.
  - 4 gaztelaniazkoak gehiago.
  - 8 bi hizkuntzetan.
  - 3 ez dago daturik.
- Langileen euskararen ezagutza:




## HERRITARREN IRITZIA

Herritarrek euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko, galdetegi bat zabaldu zen udalaren sare sozialen bidez, komunikabideen bidez eta paperezko triptiko bat etxera bidalita. Galdetegia, gainera, euskaraz ez ezik beste bost hizkuntzatan ere zabaldu zen.

Herritarrek bi asteko epea izan zuten betetzeko (2024ko martxoaren 1etik martxoaren 17ra). Guztira, 33 pertsonak erantzun zuten galdetegia. Erantzun zuten gehienak (%55) 40-65 urte bitartekoak izan ziren, eta emakumeak (%60). Euskarazko galdetegia bete zuten guztiek, eta gehienek online (%66).

Hona hemen erantzun esanguratsuenak:

### 1. Zure ustez, zure herrian, euskararen erabilera...



### 3. Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera indartsuen?

- Kultura eskaintzan
- Familian
- Lagun arteko harremanetan
- Adinekoen artean

### 4. Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera ahulen?

- Ostalaritzan (20 aipamen)
- Haurren artean (13 aipamen)
- Sare sozialetan (12 aipamen)
- Gurasoen artean (11 aipamen)

### 5. Zure ustez, zein arlotan eragin beharko litzateke?

Lehentasunen arabera ordenatuta:

1. Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak
2. Etorri berrien harrera eta integrazioa
3. Ostalaritza eta merkataritza
4. Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak
5. Ikus-entzunezkoak eta euskarazko erreferenteak
6. Lan mundua
7. Turismoa
8. Herriko euskaltzaleak elkartzeko saiakera
9. Hitanoaren ezagutza eta erabilera

## 2020-2023KO ESEP-AREN BALORAZIO KUALITATIBOA

- **Familia transmisioa**

Zenbait ekintza egiten dira familiei euskara transmititzearen garrantzia helarazteko eta horretarako baliabideak emateko, eta horiekin jarraitzeko asmoa dago. Horrez gain, 2023an hasi ziren eskolako aurrematrikulazioan gurasoen hizkuntzari buruzko datuak jasotzen, guraso edo familia tipologiaren berri izateko eta bilakaera ikusteko, eta hemendik aurrera urtero egingo da.

- **Irakaskuntza**

Getarian kezketako bat da haurren artean gero eta gehiago entzuten dela gaztelania (duela urte batzuk euskaraz bakarrik egiten zuten). 2021ean euskararen erabilera neurtu zen ikastetxeko patioan eta berretsi egin zen pertzepzio hori. Hori dela eta, eragin eremu garrantzitsua da ikastetxea; gainera, ikastetxea gune estrategikoa izan daiteke euskaraz ez dakiten gurasoen seme-alabak euskalduntzeko eta kultura ezberdinetako haurren arteko harremanak sortzeko. Getarian UEMAK zenbait formazio eskaintzen ditu HEDATU proiektuaren bidez irakasle, guraso eta helduentzat, besteak beste euskararen inguruko sentsibilizazioa lantzeko, eta adostu zen Getarian urtero emango direla zenbait saio ikastetxean. Dena dela, uste da ikastetxeekin elkarlanean gehiago egin daitekeela, bai irakasleekin eta bai gurasoekin, adibidez kulturartekotasunaren gaia lantzeko.

- **Euskalduntzea**

2023an udalak dirulaguntzen ordenantza onartu zuen, udalak euskara ikasteko doakotasuna bermatzeko.

Bestalde, Getariara bizitzera etortzen direnei harrera egiteko, "Ongi etorri Getaira" liburuxka sortu zen, eta hor euskararen garrantzia eta euskara ikasteko aukerak azaltzen dira. Azken bi urteetan, ez da harrera saiorik egin (arrakasta gutxi izan zutelako), baina AISA taldeekin landu da euskararen gaia: euskarari buruzko informazioa eta haiek duten pertzepzioa. Ondo funtzionatu du ekintza horrek, eta jarraitzeko asmoa dago. Dena dela, garrantzitsua da etorri berriei harrera egitea, eta datozen urteetan horri heldu beharko zaio berriro.

- **Merkataritza eta ostalaritza**

Getarian indar handia du turismoaren sektoreak eta, horren barruan, eragin eremu garrantzitsua da ostalaritza. UEMAK bi kanpaina egiten ditu urtero ostalaritzan eta merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko: negukoa eta udakoa. Sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaintzen zaizkie dendei eta tabernei. Horrez gain, ostalaritzako establezimenduei gogorarazten zaie terraznen ordenantza bete behar dtuela (hizkuntza paisaia euskaraz).

Bestalde, Urola Kostako "Ongi Etorri Euskararen Herrira" kanpaina egiten da udan, turismoan euskarari balioa emateko. Dena dela, ikusten da sakonago landu beharko litzatekeela gai hau turismo sektorea osatzen duten eragileekin; izan ere, ziur asko areagotu egingo da urtetik urtera. Turismoaren plan estrategikoa egiten ari dira, eta hori ere kontuan hartu beharko da.

- ***Aisia eta kirola***

Aisialdiari dagokionez, udalak euskarazko zinema emanaldiak antolatzen ditu urtean zehar, eta ekintzak arrakasta izan du azkenaldian. Horrez gain, UEMAK Salto Udalekuak antolatzen ditu urtero udalerrri euskaldunetako gazteentzat, eta Getariako zenbait gaztek parte hartzen dute.

Kirol arloan ez da euskara sustatzeko berariazko lanketarik egiten; euskaraz funtzionatzen dute kirol elkarteek.

Gaur-gaurkoz herrian euskararen inguruan aktibo dagoen taldea Euskaraldiko lantaldea da, baina ekintza eta egun zehatz batzuei erantzuten diete (Korrika, euskararen eguna, Euskaraldia), eta zerbait gehiago nahiko lukete.

- ***Administrazioa***

Hilero egiten zaio jarraipena Erabilera Planari (udal barruko euskara planari). Sentsibilizazioa eta lidergoa badago, eta udalaren kontratazioetan eragiten da, besteak beste. Sistematizatuta dago ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa), herrian egiten dire proiektuek izango duten eragin linguistikoa neurtzeko metodologia. Beste administrazioei dagokienez, bi urtean behin aztertzen da ea anbulatorioko (Osakidetza) langileek hizkuntza eskakizunak betetzen dituzten; bestela, neurriak hartzen dira. Getarian denek betetzen dute (ordezkoekin egon izan dira arazoak).

# Diseinua

## PROZESUAREN EMAITZA

Hona hemen Kontraste Taldean eta herritarrekin egindako saio irekietan identifikatu diren erronka nagusiak eta horiek lortzeko lan ildoak.


1. **Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat sortzea.**
  - a. Herritarrek (batez ere helduek) errealitate soziolinguistikoaren eta hizkuntza ohituren inguruan duten kontzientzia eta sentsibilitatea handitu, euskaldun gisa ahalduntzeko.
  - b. Haur eta gazteen hizkuntza ohituretan eta sentsibilitatean eragin, ikastetxean eta kirol, aisialdi eta kultur eragileen bitartez.
  - c. Euskara eta euskal kultura ardatz izango duten elkarguneak sortu, eztabaidatzeko, kulturaz gozatzeko eta euskal hiztunak aktibatuzeko.
2. **Euskara bihurtzea Getarian inklusiorako bidea.**
  - a. Herrira etorri berrientzako harrera formula berriak landu.
  - b. Espazioak sortu eta ekintzak antolatu, hizkuntza eta kultura ezberdinetako getariarrak elkarrengana hurbildu, elkar ezagutu eta elkarrekin egon daitezen.
  - c. Euskaraz ez dakitenek euskara ikasteko aukerak erraztu.
  - d. Kanpotik etorritakoek herriko aisialdi, kirol eta kultur ekintzetan parte har dezaten sustatu eta ekonomikoki lagundu.
  - e. Erdalduntzen ari diren lan eremuetan (arrantza, zaintza lanak...) euskararen presentzia eta erabilera handitu
3. **Getariara datozen bisitariek nabaritzea Getaria euskaraz bizi dela.**
  - a. Getaria ezagutzera datozen bisitariei begira antolatzen eta eskaintzen den guztian, tokia egin euskarari, euskal kulturari, historiari eta nortasunari.
  - b. Ostalaritzan eta merkataritzan euskararen presentzia eta erabilera handitu

Lan ildo horiek sakonago ere landu ziren saioetan, eta horietarako hainbat ekintza proposatu. AROA plangintzan jaso dira horiek.



# AROA 2024-2027

## NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA



Misioa

Getaria euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.



Nahi estrategikoa

Getariako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen urteetarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Getaria euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.



Ikuspegia

- Getarian euskararen transmisioa bermatuko da.
- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu Getariako gizarte esparru guztietan.
- Euskara bihurtuko da Getariako komunitateko kide izateko bidea.
- Getariara datozen bisitariak nabaritutako dute Getaria euskaraz bizi dela.

## ARDATZ ESTRATEGIKOAK, LAN ILDOAK, EKIMENAK ETA EKINTZAK

1.	ARDATZ ESTRATEGIKOA	GOBERNANTZA	2024	2025	2026	2027	Arduraduna
1. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: GOBERNANTZA	<b>ERRONKA</b>	<b>G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</b>					
	Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.					
	Ekimena	G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.					
	Ekintza	Udaleko euskara batzordea sortu, euskara plana aurrera eramateko eta hilean behin jarraipena egiteko.					Udala-UEMA
	Ekintza	UKUErekin elkarlanean aritu, euskara planeko zenbait ekintza egiteko: Ongi Etorri Euskararen Herrira, Mintzalaguna, Euskaraldia...					Udala-UEMA
	Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.					
	Ekintza	Herriko euskararen mahaia osatu, beharrezkotzat jotzen diren arloekin batera: ikastetxea, ostalaritza, euskara elkarteak eta taldeak, kirol eta aisialdi elkarteak...					Udala-UEMA
	Ekimena	G.1.2.4. Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu.					
	Ekintza	Euskararen erabilera sustatzeko sortzen diren taldeek izan ditzaketen behar ekonomiko zein azpiegitura beharrei erantzun.					Udala
	Ekintza	Euskarazko hedabideak diruz lagundu.					Udala
	Lan-ildoak	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.					
	Ekimena	G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.					
	Ekintza	Arduradun politiko eta teknikoekin euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu.					UEMA
	Ekimena	G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.					
	Ekintza	Udalaren Erabilera Plana bete					Udala-UEMA
	Ekintza	Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.					Udala-UEMA
	Ekintza	Udalaren euskara planaren berri eman herritarrei					Udala-UEMA
	<b>ERRONKA</b>	<b>G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.</b>					
Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.						

	Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.					
	Ekintza	Ikastetxeek euskararen mahaian parte hartzen dutela bermatu.					Udala-UEMA
	Ekintza	Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko.					Udala-UEMA

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA		JARRERA / MOTIBAZIOA				
2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERAK / MOTIBAZIOAK	ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduztzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.				
	Lan-ildoak	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.				
	Ekimena	JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu.				
	Ekintza	UEMAren HEDATU proiektuaren bidez, ikastetxean formazioak eman irakasle, guraso eta helduentzat, besteak beste arnasguneen eta hizkuntza jarreraren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.				UEMA
	Ekintza	Aisialdi, kirol eta kultura arloan estrategikoak diren elkartei formazio soziolinguistikoak eman (begiraleak, entrenatzaileak...).				UEMA
	Ekimena	JM.1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.				
	Ekintza	AEKrekin elkarlanean, ikasturte hasieran, euskaltegian euskara ikasteko kanpaina egin, eta dirulaguntzen berri eman.				Udala-UEMA
	Ekintza	Aztertu euskara ez dakiten herritarrek zein zailtasun eta zein pizgarri izan ditzatekeen euskara ikasteko, ikasten ari direnei eta ez direnei galdetuz.				Udala
	Ekintza	Mintzalaguna dinamika indartu, eta herritarrak dinamika horretan aktibatu.				Udala-UEMA
	Ekintza	Taberna eta jatetxeetarako oinarrizko hiztegi bat sortu eta hormetan jarri, denentzako ikusgai, zerbitzariak zein bezeroek/bisitariak erabil dezaten.				UEMA
	Lan-ildoak	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.				
	Ekimena	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.				
	Ekintza	Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin Euskaraz				UEMA
	Ekintza	Gizartea aktibatzeke ekimenak martxan jarri (Euskaraldia...)				UKUE
	Lan-ildoak	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.				
	Ekimena	JM.1.3.1. Euskara biziberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu.				
	Ekintza	Herritarrak euskararen egoeraren inguruan kontzientziatzeko eta hausnartzeko egitasmoak bultzatu.				Udala-UEMA
	Ekimena	JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.				
	Ekintza	Herritar euskaldunei ahalduntze eta kontzientziario ikastaroak edo ekintzak eskaini.				Udala-UEMA
	Ekimena	JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko strategiak diseinatu eta garatu.				
Ekintza	Herrian euskara ikusgarri egoteko ekintzak egin: mural bat sortu euskarari eta identitateari lotutako mezu batekin bisitariak ikusteko moduko leku batean, mosaiko bat egin euskarazko hitzekin, herrian euskal musika jarri...				Herriko Euskara Taldea	

<b>ERRONKA</b>	<b>JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</b>					
Lan-ildoa	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.					
Ekimena	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.					
Ekintza	Euskararen eguna ospatu					Udala- Herriko Euskara Taldea
Ekintza	Kultura ekitaldiak antolatu, euskal komunitatea elkartu eta indartzeko.					Udala
Lan-ildoa	<b>JM.2.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.</b>					
Ekimena	JM.2.2.1. Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.					
Ekintza	Herriko komunikabideak baliatu, euskararen erabilera sustatzeko egiten denaren berri emateko.					Udala
Ekimena	<b>JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.</b>					
Ekintza	"Ongi etorri euskararen herrira" kanpaina egiten jarraitu, bisitariari euskararen berri emateko.					UKUE-UEMA
Ekintza	Museoetan euskarari buruzko informazioa, Getariako euskara, historia... eskaini.					Udala
Ekintza	Turismo bulegoaren webgunean eta sare sozialetan Getariako euskarari buruz idatzi, eta adierazi, besteak beste, euskara Getariako ondare immateriala dela.					Udala
Lan-ildoa	<b>JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.</b>					
Ekimena	JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.					
Ekintza	AISA taldeetan, euskararen inguruko saio bat eskaini urtero, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnaguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko.					UEMA
Ekimena	<b>JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.</b>					
Ekintza	Gizarte zerbitzuekin eta herriko zenbait eragilerekin batera, etorri berrientzako harrera indartu.					Udala
Ekimena	<b>JM.2.4.5. Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.</b>					
Ekintza	Getarian UEMAREN Euskara eta Kulturartekotasun proiektua egitea proposatu, kultura ezberdinetako getariarrak elkarrengana hurbiltzeko eta parte hartzea sustatzeko.					UEMA
Ekintza	Aniztasun Azoka baliatu atzerritar jatorriko herritarrekin euskararen inguruko lanketa egiteko eta haien kultura eta hizkuntzen inguruan gehiago ikasteko.					Udala
Ekintza	Getariako festak eta ohiturak inklusiboago bihurtu beste komunitate eta kultura batzuentzat.					Udala

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA		EZAGUTZA / GAITASUNA				
3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA / ELKARRERAGINA	<b>ERRONKA</b>	<b>EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.</b>				
	Lan-ildoa	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.				
	Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharrendar araberako eskaintzak sortu.				
	Ekintza	Erdalduntzen ari diren lan eremuetan euskara ikastaroak emateko aukerak aztertu (ostalaritza, zaintza-lanak, arrantza...): UKUEren ikastaroak, Euskara Plus, Euskara Zero...				Udala
	<b>ERRONKA</b>	<b>EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.</b>				
	Lan-ildoa	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.				
	Ekimena	EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.				
	Ekintza	Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan (udalekuak, kirola...) parte har dezaten sustatu eta, behar bada, diruz laguntzeko aukerak aztertu.				Udala
	<b>ERRONKA</b>	<b>EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.</b>				
	Lan-ildoa	EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.				
	Ekimena	EG.4.1.2. Haur eta gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu.				
	Ekintza	Ahozkitasuna lantzeko aukerak aztertu: bertso programen bidez, antzerki tailerren bidez...				Udala
	Ekintza	Ahozkitasunaren inguruko formazioa eskaini irakasleei				UEMA

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA		ERABILERA / ELKARRERAGINA				
4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA / ELKARRERAGINA	ERRONKA	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.				
	Lan-ildoa	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu				
	Ekimena	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.				
	Ekintza	Urtero, haur jaioberrien gurasoei eskutitza eta kotxetarako pegainak bidali, haurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko.				Udala-UEMA
	Ekintza	Urtero, ikastetxean hasten diren ikasleeen gurasoen hizkuntza profilak jaso, guraso eta familia tipologiaren berri izateko eta bilakaera aztertzeko.				UEMA
	Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.				
	Ekintza	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini eta gogorarazi terrazen ordenantza bete behar dutela.				UEMA
	Ekintza	Herriko euskararen aliatuekin elkarlanean aritu, ostalaritzan lanketa sakonagoa egiteko.				Udala-UEMA
	Ekintza	UEMAK hitzarmena duen banketxeetako Getariako sukurtsaletan, euskararen erabileraren behaketa egin.				UEMA
	Ekintza	Aldian-aldian, Getariako anbulatorioko langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin.				UEMA
	Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.				
	Ekintza	Euskarazko zinema emanaldiak antolatu				Udala
	Ekintza	Sustatu aisialdi, kirol eta kultur elkarteek herrira begira egiten dutena euskara hutsean izan dadila: kartelak, egitarauak, ekitaldiak..				Udala-UEMA
	Ekintza	UEMAren Salto! Udaleku ibiltaria antolatzen jarraitu.				UEMA
	Ekimena	EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu.				
	Ekintza	Getariako eta Urola Kostako euskarazko hedabideak (Artzape, Guka...) diruz lagundu.				Udala
Ekimena	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.					
Ekintza	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina egin				Udala-UEM	

## GOVERNANTZA

AROA elkarlanerako markoa da, erakunde eta eragile sozialen arteko lankidetzaz sustatu nahi duena, eta nahi horri erantzuteko, markoan bertan zehazten den moduan, beharrezkoa da gobernantza eredu jakin bat, zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutakoa eta, era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena. Izan ere, euskara zerbitzuek edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

Getarian ere apustu egin da datorren plangintzaldian euskararen plan estrategikoa elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta sortzeko. Udaleko Euskara Batzordea arduratuko da, orain arte bezala, euskara plana aurrera eramateaz eta hilero-hilero jarraipena egiteaz, baina horrez gain, Euskararen Mahaia sortuko da, beharrezkotzat jotzen diren eragile sozialekin batera (ikastetxea, ostalaritza, euskara elkarteak eta taldeak, kirol eta aisialdi elkarteak...), planean jasotako erronkei elkarrekin erantzuteko. Herriko Euskararen Mahaia urtean hiru aldiz elkartuko da.

	FUNTZIOAK	OSAERA
<b>EUSKARA BATZORDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>~ Prozesuaren ikuspegi osoa izatea eta jarraipena egitea.</li> <li>~ AROA planeko eragileekin harremantzea eta elkarlanerako aukerak aztertzea.</li> <li>~ Urteko Kudeaketa Plana proposatzea, ekintzak, ardura banaketa, adierazleak.</li> <li>~ Prozesuaren amaieran, balorazioa egitea.</li> <li>~ Erabaki organoetara proposamenak bideratzea eta ekarpenak jasotzea.</li> </ul>	UEMAKo teknikaria Euskara zinegotzia Alkatea Idazkaria
<b>HERRIKO EUSKARA MAHAIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>~ Planari jarraipena egitea</li> <li>~ Planari ekarpenak egitea.</li> <li>~ Urteko Kudeaketa Plana proposatzea, Euskara Arloarekin batera.</li> <li>~ Prozesuaren amaieran, Euskara Arloarekin batera, balorazioa egitea.</li> </ul>	Euskara batzordea Ikastetxea Euskara elkarte edo taldea Ostalaritza Kirol elkarteak Aisialdi elkarteak.. (zehaztu gabe)

Bi egitura horietan ez ezik, Getariako euskararen arloa elkarlanean arituko da, orain arte bezala, Urola Kostako Udal Elkarteko euskara zerbitzuarekin, eta UEMAKo kide denez gero, UEMAREN laguntza izango du arnagune gisa dituen behar bereziei erantzuteko.

Halaber, Udalaren nahia da herritarrak aktibatu eta euskararen aldeko proposamen berriak sortzea, eta prozesu honetan bertan eman dira horretarako pauso batzuk. Hori dela eta, udalak baliabideak eskainiko dizkie euskararen erabilera sustatzeko lanetan aritzen diren taldeei eta elkarlanean arituko da haiekin.



## ADIERAZLEAK

Adierazleei dagokienez, datuak beharko ditugu aurreko lerroetan aipatutako ideien argazki bat osatzeko eta jakiteko ea bide onetik goazen ala ez. Hona hemen argazki hori osatzeko estrategikoak diren adierazleak:

Euskararen  
ezagutza

Euskararen  
erabilera eta  
eskaintza

### ***Euskararen ezagutza***

Getarian euskararen ezagutza handia da, baina azken urteetan jaisten hasi da pixkanaka, eta zenbait sektore erdalduntzen ari dira. Garrantzitsua izango da, beraz, datozen urteetan, euskararen erabilerari euste aldera, Getarian euskal hiztun berriak lortzea, eta, horretarako lehen pausoa izango da euskara ulertzeko gaitasuna lortzea.

Udalak helburu lorgarri eta zehatzetara bideratu beharko ditu bere politikak eta baliabideak.

### ***Euskararen erabilera eta eskaintza***

Getariako establezimendu, enpresa, elkarte, ikastetxe eta zerbitzu publikoetan euskararen erabilera sustatzeko lan egingo du Udalak herriko eragileekin batera. Horretarako, eskuz esku lan egingo da erakundeekin, eskaintza bermatzeko eta herritarrekin euskara gehiago erabiltzeko.

Maiztasun jakin batekin neurtuko da kalean euskararen erabilera, baita ikastetxeko patioan ere, eta emaitzak kaleratuko dira.

### ***Kudeaketa***

Abian jarritako planaren osasun maila egokia den ala ez jakiteko, planaren betetze maila kuantitatiboari erreparatuko zaio, baita emaitza kualitatiboari ere.